



Nola etorri zen gerra

Yolanda Arrieta
IRRIMARRA ilustrazioa

Nola etorri zen gerra

i r u d i a k :

I R R I M A R R A i l u s t r a z i o a

i p u i n a :

Y o l a n d a A r r i e t a

i t u r r i a :

J o s u Z a b a l e t a

Z e n b a i t i p u i n h e r r i k o i



BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

booktegi.eus

Ez dakit dakizuen baina urte assssko pasatu behar izan ziren pertsonen lehen hitza esateko; zer esanik ez, lehen esaldi ga-norazkoa botatzeko.

Aurreneko gizakiak keinuz eta soinuaz mintzatzen ziren. Adibi-dez:

—Uu-uu! —eginez tripa ukitzea beldurraren seinalea zen.

—Ua-ua! —esanez mingaina ateratzea, berriz, egarria.

—Uau! —egitea, sustoa ematea.



Jakina, gauza guztiekin gertatzen den bezala, entrenatzen-entrenatzen joan ziren. Uu-uu! *beldur* bilakatu zen. Ua-ua!, *ura*. Eta uau!, kobaz koba *gordeketan* ibiltzeko jolasa.

Hori bai, hitz-soinu bakoitzak gauza askotarako balio zuen.




Adibidez, *uu-uu-k* esan nahi zuen *beldur naiz, basurdea beldur da* edota *Beldurra ikusi dut*, lehenengo gizakientzat gauza guztiek zeukatelako bizia: harriek, zuhaitzek, txoriek, zeruak, urak, pozak, maitasunak edota beldurrak.

Aldiz, *ua-ua* egitean, ikus-entzuleak esatariaren aurpegira ondo-ondo begiratu eta asmatu egin behar izaten zuen esanahi zehatza: *egarri naiz, ur bila noa* edota *basamortuan urik ez dago*.

Azkenik, *uau* aditzean, bata ezkutatu egiten zen, besteak ospa egiten zuen eta halako hark begiak ixten zituen ez *nago hemen* esanez bezala.

Honezkero konturatuko zineten zer kaka-nahaste sortarazten zuen honek guztiak, ezta?



Hanka-sartze izugarriak egiten zituzten. Batak ura ekarri zuela esan, eta bestea ur bila abiatu. Batak mingaina atera egarri zelako, eta besteak burlaka ari zitzaiolakoan belarrondokoa jo. Batak hartza lotan aurkitzean sustoa hartu zuela adierazi nahi, eta bestea hormaren kontra begiak itxita, *ta-ta-ta* zenbatzen hasi, gordeketan jolasteko.



Behin andre bat *uau-uau*-ka ari zela, hau da, gordeketan zebilela, gizon batekin topo egin zuen. Aurrez aurre elkarri begira geratu ziren andrea eta gizona. Andreak, gorputz osoko hotzikara baten ondoren, hauxe esan zion gizonari:

—Atsegin zaitut.

Gizonak berehala ulertu zuen zer esan nahi zion andreak. Eskutik oratu eta esaldia errepikatu zion:

—Atsegin zaitut.



Esaldia bobo-bolo zabaldu zen kobaz koba, haranez haran eta itsasoz itsaso. Norbaitek gustuko norbait aurkitzen zuenean *atsegín zaitut* esaten zion, berdin zitzaion andreak andreari, gizonak gizonari, andrek gizonari ala gizonak andreri: *atsegín zaitut*.

Urte asko pasatu zen, eta elkarri lehen aldiz *atsegín zaitut* esan zioten andrea eta gizona zahartu egin ziren.



Goiz batean, korrika sartu zen andrea koban. Sorbaldetan makila luzea zeraman trabeska, eta bertatik zintzilik ura garraiatzeko larruzko zakuto bana, baina hutsik. Gizona horman hartza margotzen ari zen.

—Ua-ua, uu-uu, uau! —bota zion andreak, izututa.

Gizonak berehala ulertu zuen esanahia, hau da, *ur bila noala beldurtu egin naiz, gizontzar batek sustoa eman didalako.*



Kobazulotik atera zen gizona. Eta, hantxe, bi metro eskasera aurkitu zuen andreak aipaturiko gizontzarra.

Bakean hurbildu zitzaion gizona esanez:

—Atsegin zaitut.



Gizontzarrak, ordea, beste hau erantzun zion:

—Gorroto zaitut —eta, danba!, aizkoraz ireki zion burua.

Esaldi berriarekin loturiko gertaera hark hitz berri bat ekarri zigun: gerra.





BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

booktegi.eus